


Hemi Aldizkaria

Otamotz

1998ko apirila 36. alea



Arrakasta handiko antzerki astea



ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA

GALVEZ

JANARI DENDA
GARRAIOAK

☎ 72 12 22



BORDATXO TABERNA

BEGA

TXARKUTERIA
OILASKODENDA

☎ 72 21 65

EITZA

KAFETEGIA
TXIBIARROETAN
ESPEZIALIZATEA
☎ 72 35 57

“Eitzako
dendari eta
tabernariok
San Isidro jai
zoriontsuak
opa
dizkizuegu.”

MENDIZABAL HARATEGIA

☎ 72 55 75

JYLENE

JANARIDENDA
San Gregorio, 25
EITZA

korta

TABERNA

AMAIER

LENTZERIA
OSAGARRIAK

TABERNA

TXOMIN-ENEA
ERRETEGIA

Maiatzak 9, larunbata

16:00 - XX. Mus txapelketa

Maiatzak 15, ostirala

(San Isidro eguna)

11:00 - San Gregorio elizan auzoko zaindaria den San Isidoren omenezko meza. Ondoren Irrika elkarteak antolatuta, auzoko jubilatuentzako hamaiketakoa.

18:30 - Buruhandiak eta ume jolasak Eitzako astialdi taldeak antolatuta.

19:30 - Potea Zumarragako Trikitixak alaiturik.

21:00 - Pertzakada txilindrone auzotarrentzat.

23:00 - Dantzaldia Zabaleta eta Imanol trikitilariekin.

Gauerditik aurrera Aldapa txaranga goizalderarte.

Maiatzak 16, larunbata

11:00 - Ume jolasak Eitzako astialdi taldeak antolatuta.

12:30 - XVIII. Toka txapelketa.

13:00 tatik 15:00 tara Zaldia anaiekin kalejira.

16:00 - XI. Kross Herrikoia.

18:00 - Eskupilota partiduak .

19:00 - Aldiri Kultur elkarteko erraldoiak.

20:00 - Zaldia anaiekin kalejira.

23:00 - Dantzaldia Miramar taldearekin.

Gauerditik aurrera Aldapa txaranga ibiliko da auzoko kaleetan giroa alaitzen.

Maiatzak 17, igandea

10:00 - Antzina Ama Txistulari taldeak jotako goiz eresia.

Aldi berean “Zuhaitzaren soinua” txalapartaren ttakun-ttakun gozoak entzungo dira.

11:00 - San Gregorio elizan meza nagusia.

12:30 - Zumarragako Musika Bandaren kalejira.

13:00 - Irrintzi dantza taldearen ekitaldia.


13:00tatik 14:30tara Zaldia Anaiekin eta bertso eskolako gazteekin kalejira.

18:00 - Bertso eskolako gazteen saioa.

19:00 - Gorriti eta bere animaliak.

20:00 - Zaldia anaiekin kalejira.

22:00 - Aires Navarros taldeak abestuta jotak. Eta hauekin jaiet amaiera emango zaie.



Duela 60 urte inguru Zumarragan inauguratu zen lehen futbol zelaiko argazkia dugu hau.

Ezkerretik eskubira: Eloy Casasola, Jose Odriozola, M^a Begoña Artetxe, Leiar Aranguren (Martin Aranguren Zumarragako alkatearen alaba), Isabel Garin, Gaspar Madariaga, Angel Hernandez eta Jesus Piedad.

Argazkia Argentinan bizi den M^a Begoña Artetxek utzitakoa.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943725775 **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

MVRVA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO

Levi's

LIBERTO
"SPORT STYLING" STYLE

Pepe Jeans
LONDON

DIESEL
JEANS AND WORKWEAR

SALTOKIA

DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA



MADARIAGA

Gestoria-Inmobiliaria-asegurua

Labeaga, 27 eta faxa: 72 55 29
URRETXU



ERAIKUNTZEKO
MATERIALAK

ALMACENES

SANTA BARBARA


Eraikuntzarako era guztietako materialak.
Gres eta azulejotan markarik onenak.

Mugitegi Pol. B, 2 eta faxa 72 55 16
URRETXU

Larraioltz

Barne diseinuak

Altzariak eta dekorazio gaiak
Dekorazio proiektuak
Estilodun opariak
Eskaparatismoa



Bidezar, 9 eta faxa 72 12 56
ZUMARRAGA

EUSKARAREN ALDEKO DEIA

E.A.k, Udal Hauteskundetarako aurkeztu zuen zerrendaburua euskaraz gutxien edo ezer ez hitz egiten zuenetarikoa ipini zuelako, Urretxuarroi dagokigun alkatearekin ezin dugu euskeraz hitz egin.

Urretxuko Udaletxean alderdi nazionalistek hamar ordezkari izan arren, bileretan dagoen giroa guztiz erdalduna da, P.N.V. ko zinegotziek euskaraz inoiz ez dutelako hitz egiten eta E.A.ko zinegotzi euskaldunek euskaraz noizbehinka hitz egiten dutelako.

Urretxuko udaletxeko aurrekontuetan ordezkari gasteetarako hiru miloi hartu dira, iaz baino hirurehun mila pezeta gehiago, eta E.A.k bideratzen duen euskara batzorderako

beste hiru miloi, iaz baino hirurehun mila pezeta gutxiago. Euskara batzordeak euskararen aldeko gutxitu duen diru gastua aginte organoek erderaz egingo dituzten ordezkari gasteak handitzeko eman ditu. Antza denez, euskara batzordeko lehendakaria den Maite Askasibarrentzat, aginte organoen gastuak kubritzea euskararen aldeko bultzadegor ditzakeen gastuen gaineratik dago.

E.K.B.k euskarazko irakaskuntzaren aldeko kanpainaren berri udalari ematearekin batera lankidetzarako proposamena luzatu dio. Udaletxeko euskara batzordeak, iaz horrelako kanpaina aurrera eramateko egin ziren ahaleginetan adostasuna lortu ez zelako, aurten, "D" ereduaren aldeko zerbait egitea aztertu gabe, E.K.B.k egindako eskaintza alde batera uztea erabaki du. Matrikula

kanpaina aurrean, "D" ereduaren alde H.B.k mozioa sartu du, baina, P.N.V., P.S.O.E.-E.E. eta E.A.k mozioa atzera bota dutelako, euskarazko irakaskuntzaren aldeko deia luzatu gabe gelditu da.

E.A.k eta P.N.V.k euskerarekiko jarrera hain pobrea duen jendea udaletxean ordezkari gisa du, eta honek posible egiten du udaletxera zerbaitetara hurbil daitekeen edozein euskaldun bertako zerbitzu guztietan euskaraz atenditua ez izatea.

Jon Mikel Irigoras

Jesus M^a Urbegain

Urretxun H.B.ko zinegotziak.

Zorionak !!!



● Maiztzaren 22an zure urtebetetzea izango da eta aurten kafe baten bidez ospatzea espero dut. **ZORIONAK ASUN!!!!**



● Bere urtebetetze egunean zoriondu nahi degu bihurri xamarra den mutil hau. Eguna ondo igaro eta **ZORIONAK GAIZKA!!!**



● **ZORIONAK IKER!!**
Zuretzat egun berezi bat izatea espero degu. Zure arreba eta gurasoek.



● **ZORIONAK IRATI!!!**
Egun zoragarria igaro ezazu, maiztasunez zure aizpa Jone, aitatzok eta amatzok.




● Gure gizontxoak 5 urte bete dituela !! Muxu handi bana inguruan gauzkazun guztion partetik. **ZORIONAK JON ANDER !**



● Maiztzaren 22an 24 urte beteko dituzula eta, zure neska guztien partetik musu handi bat eta **ZORIONAK XABIER !**

Iparragirre, 12
Tel. 72 62 66



20700 ZUMARRAGA
(Gipuzkoa)

OPARIDENDA

ADI!! GANBARAN
%10EKO DESKONTUA
DAUKAZU TXARTEL HAU
AURKEZTUZ GERO.



TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN VI. GEHIGARRIA



*Aste Santutako oporrak amaitzearekin batera bakoitzak bere zereginetara bueltatu behar izaten degu eta zuek ere eskolara itzuliko zineten zuen klaseekin jarraitzeko asmoz. Gainera kontutan hartu behar da udarako oporrak iristeko denbora gutxiago falta dela eta horrek nolabait eramangarriagoa egiten du beti ere itzulera. Gainera oporrak iristeko falta den tarte honetan kirola egiten jarraitzeko aukera daukazue. Aurreko aste bukaeran zuetako batzuk beisbolean jarduteko aukera izan duzue jo ta su. Guk hilabete honetan txirrindularitzan aritzen den eta hain denboraldi bikaina egiten ari den Iker Juantorena gaztea hobeto ezagutzeko parada eskaintzen dizuegu. **TXIKIMOTZ** en bestalde azken ihardunaldian gertatutakoaren berri ematen dizuegu. Besterik gabe agur bero bat eta hurrengo hilabeterarte.*

TXIKIMOTZ

KIROL EMAITZAK

BENJAMIN MAILA

ESKUBALOIA
(98-4-25)

Larunbat goizean Ispilla polikiroldegian jokaturako partiduak.

D. AGIRRE A - 2
IKASTOLA A - 2

LA SALLE A - 2
LA SALLE B - 1

ZELAI ARISTI - 3
IKASTOLA B - 1

D. AGIRRE B - 0
IKASTOLA C - 1

IKASTOLA D - 0
LA SALLE C - 3

GAINZURI C - 1
IKASTOLA E - 2

INFANTIL MAILA

BEISBOLA MUTILAK
(98-4-25)

Larunbat goizean Argixaon jokaturako partiduak.

HAZTEGI - 2
IKASTOLA - 6

OLAZABAL - 0
IPARRAGIRRE - 9

IPARRAGIRRE - 5
LA SALLE - 5

BEISBOLA NESKAK
(98-4-25)

OLAZABAL - 4
LA SALLE - 9

LA SALLE - 7
IKASTOLA - 6

IKASTOLA - 9
IPARRAGIRRE - 4

ALEBIN MAILA

SASKIBALOIA
(98-4-25)


Larunbat goizean Aldiri polikiroldegian jokaturako partiduak.

IKASTOLA A - 22
LA SALLE A - 25

IKASTOLA B - 19
LA SALLE B - 21

IKASTOLA C - 33
LA SALLE C - 19

D. AGIRRE - 34
ZELAI ARISTI - 17



KIROL EMAITZAK (98-4-25)

KADETE MAILA

FUTBOLA NESKAK

Larunbat goizean Argixaon jokaturako partidua

HAZTEGI A - 5
HAZTEGI B - 3

LA SALLE - 2
OLAZABAL - 1




INFANTIL MAILA


FUTBOLA NESKAK

Larunbat goizean Argixaon probintziar mailan jokaturako partidua.

Legazpiko Haztegik - 1
Oiartzungo Haurtzarok - 1



Iker Juantorena txirrindularitzan lehen urretsak emanaz



HERRIA: EZKIO-ITSASO

ADINA: 13 URTE

TALDEA: S.D. GOIERRI

HIERROS HIERCOR

(INFANTIL MAIALA)

IDOLOA: PANTANI (ITALIARRA)

GARAIPENAK: AURTEN BI GARAIPEN LORTU DITU BATA ARETXABALETAN ETA BESTEA JOAN DEN LARUNBATEAN BERGARAN.

ORAINARTEKO DENBORALDI ONENA DUELA BI URTE IZAN ZUEN BOST GARAIPEN ESKURATU ZITUELARIK.

LASTERKETAK IBILBIDE GOGORRAREKIN DITU GUSTUKOAK, ALDAPA GORA NAHIKO ONDO MOLDATZEN DA, NAHIZ ETA TALDE TXIKIETAN IRISTEN DENEAN ESPRINEAN IRABAZTEN ERE

-Noiz hasi zinen txirrindularitza munduan?

Duela bi urte, 11 urterekin hasi nintzen.

-Nolatan hasi zinen norbatak animaturik ala gustukoa zenuelako?

Nire aitak talderen batean izena emateko esaten zidan, aldi berean nire lehengusua bizikletan ibiltzen zen eta azkenean bien artean konbentziturik hasi nintzen.

-Zenbat aldiz entrentzen dezu astean?

Astean bitan entrentzen degu, Urretxuko industrialdean, Mugitegin, astearte eta ostegunetan ordubete egun bakoitzean.

-Entrenamenduak lagunekin irtetzeko edo ikasteko denborarik uzten al dizute?

Bai, oraingoz bai, astean bitan bakarrik entrentzen degulako, baina esan didatenez hurrengo urtetik aurrera gauzak asko gogortzen dira, batez ere entrenamenduak egun gehiago izaten direlako eta gogorragoak ere bai aldi berean.

-Entrenatzaileak zer nolako aholkuak ematen dizkizu?

Entrenatzaileak nola ibili behar degun esaten digu, bihurguneak nola hartu behar diren, zein abiaduratan joan behar degun eta honelakoak erakusten dizkigu.

-Konpetentzia handia

al dago zuen mailan?

Aurten iaz baina gutxiago, izan ere aurten nire adinekoak gera mailako zaharrenak eta iaz berriz alderantziz gertatzen zen. Iaz maila honetako erritmoa jarraitzea oso gogorra egiten zitzaigun baina aurten berriz ohitura gaudenez errezagoa egiten zaigu.



Maila batetik bestera orduan alde handia egongo da ezta?

Orain 8-10 kilometro egiten ditugu, eta hurrengo urtean adibidez 40 kilometroko lasterketetan hartuko degu parte, beraz alde nahiko handia izango dela uste dut.

-Nola definituko zenuke zure burua txirrindu-

lari bezala?

Nik lasterketa gogorrak ditut gustukoak, aldapa askoko lasterketetan hobeto moldatzen naiz.

-Zein asmo dituzu denboraldi honi dagokionez?

Denboraldia azkar bukatzeko gogoak daukat, hurrengo denboraldia prestatzen hasteko. Lehen gusuak taldez aldatzeko esaten dit bere talde berdina joateko, berak lehen ni nagoen talde berdinean korritzen zuen, baina kadeteetan Ordiziko taldera joan zen. Nik oraindik ez dut erabakarik hartu eta ez dakit zer egingo duan.

-Zer nolako sasoi puntuan zaude une honetan?

Nahiko ondo nago une honetan denboraldia duela hilabete hasi genuen eta ekainean bukatzen degu, dena den oraindik gauza garrantzitsuak egin ditzakedala uste dut denboraldi honetan.


-Bukatzeko zure ustez nor izango da aurten Tour-eko irabazlea?

Ulrich ek irabaziko duela pentsatzen dut nahiz eta oraindik oso ondo ez dabilen.

-Eta Olano?

Pentsatzen dut podiuma egingo egongo dela, bestela iaz bezala laugarren edo bukatuko du.

Zer iruditzen zaizu lan astea 35 ordura jaistera?



Jose Perez

Lan gehiago egongo dela egia bada oso ondo iruditzen zait. Jende gazteak honelako ekimenak behar ditu.




Irene Arranz

Ondo iruditzen zait neurri hau hartzea. Jende asko dago eta zoritxarrez, lan gutxi.



Jesus Grande

Oso ondo iruditzen zait. Honela lan gehiago badago behintzat, neurri ona da.




Rikardo Babarro

Neurri on bat izan daiteke. Hala ere sektore batzuk, arazoa honela ez dela konponduko diote. Dirudienez, estatu mailan ekonomia ondo doa beraz neurri hauek hartzea komeni da.



Filomena Martin

Gauzak hoberuntz badoaz ondo. Baina ez dut uste arazoak honela konponduko direnik.



Bixente Azkarate

Hainbeste adelanturekin jendea lanik gabe gelditu da. Nire garaian ez zen horrelakorik gertatzen. Baina denentzako lana egoteko beharrezkoa bada ondo iruditzen zait.

BIONA
AROSZTEGIA
Altzariak neurritan
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa fundazioa
fundación

LIBURIDENDA
GANBARA
Labeaga, 52 ☎ eta Faxa: 72 50 45
20700 URRETXU

Lanb.a.
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61




Prudentzio Deuna bertso sariketako txapelak Urretxun jarraitzen du

Aurtengoan ere berri pozgarriak iritsi zaizkigu Gasteiz aldetik, bertan, Asier Otamendi urretxuarrak bigarren aldiz lortu baitu Prudentzio Deuna bertso sariketa.

Finala apirilaren 19an burutu zen Florida Kultur Etxean eta Otamendiz gain, beste bost bertsolari aritu ziren txapelaren atzetik.

Otamendik ez zuen bertso-tan ohi duen maila eman baina ez zuen hankasartzerik egin eta txapela lortu ahal izan zuen. Ea hementik urtebetera hirugarrenaren berri ematerik dugun.



J.M Iparragirre ikastetxean Aste Kulturala ospatu zen

Martxoaren 30etatik apirilaren 3ra burutu zuten J.M Iparragirre ikastetxeko ikasleek Aste Kulturala. Hainbat hitzaldi, antzerkia, diapositiba emanaldiak eta bertsolariak izan ziren. Ordubete inguruko saioa eskaini zuten Andoni Egaña, Xabier Euskitze eta Jesus Mari Irazuk giro aparta sortuz.

Hizkuntz ihardunaldiak

Maiatzaren 7an, 13an eta 20an arratsaldeko 6etan, **Zintzo-Mintzo elkar-teak** antolatuz hizkuntz ihardunaldiak izango dira Urretxuko kultur Etxean. Ikastaroaren gidariak **Juan Garzia**, **Pello Esnal** eta **Xabier Mendiguren** izango dira. Hizkuntz ihardunaldi hauek doan eskainiko dira.

Bestalde **Bisasti AEK** euskaltegiak **Euskara hobetzeko ikastaroa** antolatu du maiatzaren 5etik ekainaren 25a arte. Astean bi egunetan izango da, astearte eta ostegunetan eta . Ikastaroak 30 orduko luzapena du. Prezioa 6.000 pztakoa da eta informazio gehiago nahi izanez gero 720458 telefono zenbakira dei dezakezue.

Maiatzaren 21ean, Goierri eskualdeko merkatarientzako jardunaldiak izango dira Ordizian.

Eusko Jaurlaritzako Merkataritza sailak, datorren maiatzaren 21en Ordizian, "Gestioa obetzeko plana" izeneko programa merkataritza guztiei ezagutarazteko informazio jardunaldia egingo du. Programa hau daramaten gestioaren atal ezberdinen ikerketa egitea nahi duten merkatariei zuzendutako dohane-ko zerbitzua izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943160673 telefonora dei dezakezue. berri ematerik dugun.

Apirilaren 1ean, Zumarragako udalan, **Ur Araztegiaren** aurkezpena burutu zen.

Proiektu honi esker, **Urola ibaia**, garbia geratuko da bi urteko epean. Aurkezpen ekitaldian, besteak beste, **Jose Antonio Maturana**, Eusko Jaurlaritzako Herri Lanen Sailburua izan zen. Ur Araztegiaren eraikuntza lanak, Pridesa, Nexo taldeko enpresak burutuko dituela esan zuen. **Mila milioiko aurrekontua** beharko da ur araztegia egiteko eta aurrekontuari, **Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Uren Partzuergoak** egingo diote aurre erdibana.

Lanak, maiatzaren amaiera aldera hasiko dira eta **2.000. urtea** baino lehen amaituta egon beharko dute.

Antzinako baseliza, Loiola eta Arantzazuko Santutegiekin batera turismoa bultzatzeko asmoz

Hiru Tenpluen ibilbidea izeneko ekimena jaio da Gipuzkoako barnekaldera ere turistak erakartzeko

Zumarragako Antiguako Ama Birjinaren Ermitak, Oñatiko Arantzazuko Ama Birjinaren Santutegiak eta Loiolak Ignazio Deunaren Santutegiak osatzen dute Hiru tenpluen ibilbidea. Uggasa, Urola Garaiko garapen agentziak, Iraurgi Lantzen, Urola Erdiko


garapen agentziak eta Deba Garaiko mankomunitateak bultzaturiko ekimena izan da. Apirilaren 21ean burutu zen proiektu turistiko honen aurkezpena Antiguako eta bertan, hainbat politikari, tartean, Roman Sudupe Gipuzkoako diputatu nagusia, herrietako alkate, apaiz eta herritarrak izan ziren.

Ibilbide hau bultzatzeko asmoz, apirilaren 23tik 26ra Bartzelonako turismo ferian izan ziren eta maiatzaren 6tik 10era, berriz, Bilboko feriara joango dira. Gainera, Foru Aldundiko Ekonomi eta Turismo sailak Euskadiko hiriburuetan ezarriko dituen karpetan ere ikusi ahal izango da Hiru tenpluen ibilbidea. Promozio kanpaina aurrera eramateko, logotipo, pin, kartel eta liburuxkak kaleratu dituzte.

Tenpluaren aitzakiarekin, eskualdeek dituzten gainontzeko errekurtso turistikoak ere ezagutzera eman nahi dira.



Urola Garaiaren kasuan, turistak, Antiguako Ermita ikusteaz gain, Lenbur, Legazpi Etxea, Iparragirrerren estatua, mausoleoa eta abar ezagutzeko aukera izango dute. Epe luzera gainera, Hiru Tenpluen Ibilbide hau, nazioarteko ibilbideetan sartzeko asmoa dago, Lourdes, Sant Michael eta Fatimakoaren batera.



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700

☎ 725682

URRETU

722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



BAPRI

ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3

☎ 72 61 13

ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga, 31

20700 URRETU

☎ 72 27 80

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



ARTYRO

Ipeñarrieta, 4

☎ 72 14 20

URRETU

Irrintzi dantza taldeak urteroko jaialdia egin zuten

Apirilaren 4an, Zumarragako Beloki pilotalekuan bosgarren urtez jarraian zitari eutsi zion Irrintzik dantza jaialdia eskainiz. 120 dantzari inguru aritu ziren ia bi ordu iraun zuen jaialdian.

Urtarrilean hasi ziren Irrintzi taldekoak jaialdia prestatzen eta orotara, hamaika dantza eskaini zituzten. Neskak, baterak, kontrapas, eguzkilore eta neskatxena, azken hau gainera, entseietan asko landu eta gero. Mutilak, Gipuzkoako ezpatadantza, Berastegiko dantzak eta Otxagabia.

Azkenik, gaztetxoak, Zazpi jauzi-txilalari, Arrantzale-zinta dantza, lanestosa eta axuri beltza dantzatu zituzten. Beti ere, dantza berriak plazaratzen saiatzen dira eta aurten ere hala egin dute. Eszenatokiak berriz aparteko aipamena merezi du. Aurtengoan, baserri bat eraiki zuten nahiz eta muntaia lanak aurrera eramateko arazo batzuk izan.

Baina jaialdi honetaz gain Irrintzi dantza taldeak bestelako ekintzetan ere parte hartzen du urtean zehar. Txikienak esatebaterako, inguruko

herrietako dantzari txikietan eta auzo nahiz herrietako festatan dantzatzen dute. Nagusiagoak berriz, festatan, Zumarragako ezpatadantzan, ihauterietan, Urretxuko Euskal Jaian eta San Juanetan dantzatzen dute. Honez gain, azken denboraldian kanpoan dantzatzeari ere ekin diote. Iaz, Lleida, Cortes eta Durangon izan ziren eta aurten, Oyon eta Sevillara joatekotan dabiltz. Honetaz gain, Zumarragako festatan, trukea egingo dute, hau da, talde bat gonbidatuko dute eta ondoren gonbidatu duten talde horren herrian dantzatuko dute.

Antonino Oraa izeneko eskolan eta Lizeoko gimnasioan entseiatzen dute. Ekitaldiren bat gertu dagoenean, beharrezkoak diren entseiu guztiak egiten dituzte behar diren egunetan bestelakoan ordea, larunbatetan aritzen dira. Gazteak, arratsaldeko 5etatik 6etara eta nagusiagoak berriz, ondoren.

Adin guztietako dantzariak



4 eta 40 urte bitarteko 120 dantzari inguruk osatzen dute Irrintzi. Horretaz gain, normalean, 5 musikari izaten dituzte. Taldean, giro ona dute eta honen adierazgarri da hain zuzen erdi serio, erdi bromatan idazten duten aldizkaria. Lau ale kaleratu dituzte jadanik baina badaezpada edo, ez omen dute aldizkaria, dantza taldetik kanpo erakusteko asmorik.

Dirua, Zumarragako Udalak emandako laguntza bati esker, festatan txozna jarritz eta kamisetak salduz lortzen dute. Azken urteetan gainera diru dexente gastatu dute jantzi

berriak erosten. Horrenbeste urtetan dantzan aritu eta gero makina bat anekdota dituzte gogoan. Behin Lleidan zeudela, eszenatoki txikiegia zela eta prestatu zituzten dantzak aldatu beharra izan zituzten bat batean. Dantzariak barruan ze dantzatu pentsatzen ari zirela, musikariak jendearen aurrean trikitixa jotzen ari ziren denbora egiten. Musikariei ordea, errepertorioa amaitu eta Kaxianoren "Itsasontzi baten kanta abestea bururatu zitzaizen. Sekulako giroa jarri omen zuten, ikusle guztiak, erritmoa jarraituz txaloka hasi ziren eta.

OINETAKOAK
OSAGARRIAK

Dona Maximina

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 44 82

☎ 72 42 55
Legazpi, 14
ZUMARRAGA

☎ 43 19 72
Getaria, 18
DONOSTIA

IKER

SUKALDE ERAKUSKETA

FAGOR

Udala Enparantza, z/g
Tel.: 943 / 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5
Tel.: 943 / 72 50 75
20700 URRETXU

Uda datorrela eta, zer egin soberan dituzun kilo horiekin?

Neguan neurririk gabe jan ondoren udaberrian kezkatu ageri ohi da hainbat jende soberan dituen kiloak direla eta. Gai honen inguruan informazio gehiago izateko asmoz, bi herrietako kiroldegi eta Lanbroa eta Belar Zain dietetika dendetara jo dugu.

Lanbroako Aurorik esandakoaren arabera, garai honetan jende asko joaten da berehala argaldu nahian produktu magikoen bila. Hala ere, gero eta jende gehiago da urte osoan zaintzen dena.

Batzuk argaltzeko batere beharrik gabe joaten dira. Hauei beharrik ez dutela eta kirola egitea gomendatzen die Lanbroako jabeak. Gomendioak: Karbono hidratoak eta proteinak ez nahastea, kirola neurrian egitea, eta "Behartsuaren elikadura" delakoa egitea, hau da, batez ere barazkiak eta lekak jan. Bestalde, bakoitzak bere metabolismoa du eta ez da honen aurka joan behar.

Moda estetikoak alde batera uztea eta gure elikadura modu errazean zaintzea komeni dela dio Aurorik.

Belar Zaineko Maria Luisa Azpillagak, berriz, uda gertu dagoela eta, hainbat jende kilo batzuk argaltzeko dieta bila joaten dela esan digu. Batik bat, neguan gehiegi zaindu ez den jendea joaten zaiola dio. Aurpegi irribarrea duela gogoratzen du Belar Zain dendako jabeak duela 17 urte denda zabaldu zuenean, garai hartan, ingurune zabalean zegoen modu honetako denda bakarra zela. Dendara joaten den pertsona bakoitza goitik behera begiratu eta ondoren aholkatzen omen du, hau da, pertsonalizatu egin behar da.

Hala ere sekreturik ez dagoela aitortu du. Janari garbiak jan behar omen dira, grasa eta gozoak alde batera utziz. Azkenaldi honetan asko aholkatzen ari dena Spirulina izeneko algak dira. Bere aholku eta errezeptak laguntza bezala hartu behar direla pentsatzen du Maria Luisak, sendagileak emandako medikamentua alde batera utzi gabe. Belar Zaineko jabearen ustez, dietetika, etorkizunean izango dugun prebentziorako medizina izango da.

Urretxuko kiroldegian ez omen da horrenbeste nabaritu udaren hurbiltasuna, hala ere, Elena Martinezek, aerobik irakas-



leak, esandakoaren arabera, bere taldean igarri da zertxobait. Elenak garbi du aerobikera azken momentuan joatearekin ez dagoela miraririk egiterik. Urte osoan zehar arituz gero eta elikadura zainduz gero, emaitza ona lortu daiteke batez ere bolumena galduz. Hogeirentzat gazteko hiru talde zuzentzen ditu Elenak eta batik bat grasa erretzeko ariketak egiten dituzte.

Mikel Kristobal, Urretxuko kiroldegian baita ere, mantenimendu eta prestakuntza fisikoko irakaslea da. Normalean, aerobika praktikatzen duten pertsonak baino helduagoak dira bere ikasleak eta agian horregatik, ez omen diote udaren gertutasunari horrenbeste erreparatzen. Mantenimenduan 90 pertsona inguru eta prestakuntza fisikoan, 24 pertsona aritzen dira.

Orokorrean, bai Mikelek eta baita Elenak ere, geroz eta jende gehiago animatzen dela diote, jendeak, gorputzarekiko kezka handiagoa azaltzen duen seinale.

Zumarragan, Urretxun antzera, gero eta jende gehiegok hartzen du parte honelako ekintzetan. Zumarragako kiroldegiko arduraduna den Joxean Mendizabalek azaldu digunez, eskaera ezberdinei aurre egiteko taldeak sortu dira. Talde hauen helburua gorputza urte guztian zehar osasuntsu mantentzea da, eta ez udaran soilik. Aerobika egiten duten hiru talde daude bakoitza 20 pertsonaz osatua, laugarren talde bat osatzen dabilta arratsaldeko hiruretarako.

Mantenimendu edo osabideari dagokionean 110 dabilta 5 taldetan banaturik. Haez gain beste 3 talde daude, 3. adinekoentzat, Atzegik atzeratuentzat antolatzen duena eta azkenik gimnasia berezia lesioak edo antzekoak sendatzeko.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 72 02 15 - Faxa: 72 52 91
S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Leo Bassi: "Probokatzaile hutsa naiz"

Nahiz eta Estatu Batuetan jaio, 46 urteko zirko gizon italiarra da Leo Bassi. Leorekin, umorista eta artisten seigarren belaunaldia bete da bere familian.

Hainbat zorakeria egin ditu bizitzan zehar baina bereziki, Italiako Aire Armadako Ejerzitoari egindakoa gogoratzen du. TVEko zuzendariak, bertako programa batean zuzenean zegoela zakur kaka jan ondoren, gehiago ez zela joango esan zioten. Egun, Canal + katean ari da kolaborazio batzuk egiten.

Urretxu-Zumarragako Antzerki Astean izan da "Instintos Ocultos" lana aurkezten eta saioa hasi aurretik, primeran hartu gaitu.

Nor da Leo Bassi?

Probokatzailea, umorea eta era berean beldurra sortu nahi duen anitzkulturaduna. Estatu Batuetan jaio nintzen, Frantzian ere bizi izan naiz eta Espainian, duela bi urte hasi nintzen emanaldiak eskaintzen. Bizitzan ikusten ditudan kontraesanekin, hausnarketa eta farrea sortaraztea dut gustuko.

Bizitzan beti daude kontraesanak eta probokatzaile komikoaren zeregina, horiek salatzea da.

Hainbat urte zirkoan egin ondoren, zerk bultzarazi zintuen zirkoa uztera?

Zirkoak ni utzi ninduen eta ez nik zirkoa. Nik

eszenatokira eramaten dudan espiritu barregarri eta anarkikoa, nire aitak, aitonak, birraitonak eta abarrek egindako bera da. Zirkoa ordea, zoritxarrez, umeentzako espektakulu izatera heldu da. Lehen ordea, adin guztietako jendea joaten zen zirkoa. Lehen zirkoak zuen garrantzia futbolak hartu du orain. Etorkizunari aurre egin nahi niolako hartu nuen zirkotik irteteko erabakia.

Espektakulu mota hauekin, zein da zure helburua?


Jendea harritzea. Helburua jendea harritzea denean, gizarte honetako hainbat gauzaren aurka zoazela esan nahi da. Ohitura ez den zer edo zer plazaratzea da. Petardo bat jarriz edo ezberdina den iritzi politikoa emanez sortu daiteke jendearen artean harridura. Pertsona arrunten artean, egunero bizitzeko erritmo bera dutenen artean desoreka piztea dut gustuko.

Zer da gizarte honetan gustukoa ez duzuna?

Nahiz eta serioa iruditu, oso pertsona alai naiz eta baita baikorra ere. Mundu honetan gauza asko dira gaizki doazenak baina jarrera baikorrek, arazo guztiak konpondu daitezke.

Asko inprobisatzen al duzu zure emanaldietan?

Nire antzezlan guztiek hasiera eta amaiera bat dute baina tartean, jende-



ak nola erantzun behar duen ez dakidanez, ez ustekoak izaten dira. Gidoia beti dut prestatua baina arrantzan gertatzen den bezala, batzutan arrai txiki bat arrantzatzen duzu, beste batzutan arrai handi bat eta beste batzutan, ezer ez, gau bakoitza ezberdina da.

Noizbait jendeak modu txarrean erreakzionatu al du zure emanaldietan?

Askotan. Italia, Alemania eta Estatu Batuetan erasoak jasan ditut. Emanaldia amaitu eta gero ikusle batzuk kanpoan itxaron eta besoa, saihets bat, behatz bat eta hortza

apurtu zidaten. Hortza apurtu zidana adibidez zoro bat zen. Emanaldi batean Volvo markako kotxe bat apurtu nuen, jostailua noski. Ondoren, pertsona hori etorri eta hildakoei farre egin niela esan zidan. Nik ez nekien zertaz ari zen. Azkenean, bere anaia bi egun lehenago Volvo batean istripuz hil zela jakin nuen. Nola jakin behar nuen nik hori aurretik?

Zer iritzi duzu telebista eta antzerkiaren gaur egungo egoeraz?

Ezin dut gehiegi hitz egin ez baitut bertako egoera ondoegi ezagutzen.

Azkenaldi honetan Alemanian nabil antzezten, atzo Ermuan, gaur hemen eta bihar Arrasaten antzeztu behar dut baina ez dakit gehiegi bertako egoeraz. Antzerkia garrantzia galtzen ari da telebista kate ugari eta zinea sortu direlako. Telebistan agertu beharra dago emanaldiak izan eta jendea zu ikustera etor dadin. Gogorra da baina egia.

Gustora al zaude Canal + eko "Lo + plus" saioan?

Bai, ez didate mugarik jartzen eta hori ona da. Okerrena 2,3 minutu baino ez ditudala izaten dena egiteko da. Alemaniatic hegazkina hartu, agerraldia egin eta berriz ere buelta egiten dut berehala, nekagarria da baina tira.

Itzuliko al zinateke TVEra?

Ja, ja...Badakit zergatik galdetzen didazun hori. Gaizki ulertua izan zen. Programa modernoa, nahi nuen guztia egin ahalko nuela esan zidaten baina bertara joan eta iguingarria zela konturatu nintzen. La 2eko Hallebop programa zela uste dut, hain txarra zenez, kendu egin zuten. Bertako ikusleak amonaxoak ziren eta zera pentsatu nuen; nik hauentzako emanaldia eginez gero, nire betiko ikusleak haserratu egingo dira. Beraz, nahiago nuen amonaxoak haserrera zetea eta horregatik jan nuen zuzenean zakurraren kaka. Sekulako eskandalua izan zen eta TVEko batzuek, berriz, ez nintzela kate horretara itzuliko esan zidaten

Zein da eszenario gainean inoiz egin duzun



zorakeririk handiena?

Italian, "Heavy metal"-eko kontzertu batean izan zen. Aurretik, Italiako Aire Armadako Ejerzitoarekin negoziazio luzeak izan nituen F104 markako sei ehiza hegazkin lortzeko. Koronelak ez zidan utzi

**"Italia,
Alemania eta
Estatu Batuetan
emanaldia
amaitu eta gero
ikusle batzuk
kanpoan itxa-
ron eta besoa
saihets bat eta
hortza apurtu
zidaten"**

nahi baina azkenean kontzertu nuen gazteak ejerzitoan sartzera bultzatzeko aukera paregabea zela esanez. Gezurra zen noski. Akordioa, ordu jakin batean, sei hegazkin hoiak, kontzertuko eszenatokitik, 30 metro eskasera igaroko zirela zen. Koronelak ez zekiena, nik ordu horretarako suziriak prestatu nituela zen.

Kontzertu "heavy" horretako eszenatokian nengoe-la, jendeak hasieran putaseme eta zaharra deitzen zidan baina gero, ederki asko konpondu ginen. Militarrak kontzertua boikoteatzera zihoazela esan nien baina era berean, lasai egoteko, kohete eta gainontzeko materiala banuela eta kontraerasoa egiteko. Ikusleen artean kohete eta suziriak banatu eta hegazkinak iristean, sekulako zarata eta festa izan zen. Gainera gero, hegazkin gidarien ez uste-ko bisita izan genuen, lur hartu aldatu eta kontzertura etorri ziren. Nire bila

zetozele pentsatu nuen baina zoriontzera etorri ziren, beraiei ere asko gustatu zitzaizela esan zidaten.

Zer dakizu Euskadiri buruz?

Gutxi ezagutzen dut. Gasteiz, Eibar eta Donostian egon naiz. Euskaldunak gogorrek dira eta gustukoa dut, nire emanaldiak ere gogorrek direlako. Gainera, Euskadi, Erromatar Inperioak konkistatu ez zuen lurralde bakarretarikoa da eta horrek zirrara ematen dit. Euskaldunak, indartsuak eta norberarengan konfidantza dutenak direla iruditzen zait.

Amaitzeko, esan nahi duzuna.

Jendea, nik egiten ditudan tontakerien mamiaz jabetzera nahiko nuke. Atzean, bizitza eta gauza garrantzitsuei buruzko erreflexio bat dagoela konturatzea alegia. Hau da guztia.

Kirol taldeak sasoi ezin hobean

Urola Futbol taldeko jubenilak

Urola taldeko jubenilen lehen taldea ohorezko mailan dago egun, baina Euskal Liga deritzanera igotzeko aukera ona du. Lehenengoarekin berdindurik daude puntutara eta hirugarrena (Oartzun) 3 puntutara dute.

Gainera liderra den Antiguokoren aurka Argixaon jokatu beharra dute oraindik. Ohorezko maila Gipuzkoa mailan jokatzen da eta lehenengo geratzen dena zuzenean Euskal ligara igoko da. Liga hau Euskal Autonomi Elkarte taldeez osatua dago. Ohorezko mailan bigarrenak geldituko balira, ligaxka bat jokatu beharko lukete Bizkaia eta Arabako Ohorezko mailan bigarren geratzen direnekin eta garailea mailaz igoko litzateke.

Taldeak oso ondo hasi zuten denboraldia eta denbora luzean lidergoan egon ondoren, pixka bat beheruntz joan da. Izan ere jokalaria asko errejonaleko eta preferente mailako taldeekin aritzen dira. Honek baja asko eta nekea sortu die. Hauek azken partiduetarako jendearen bultzada ezin bestekoa dute indarberritzeko.



Goierri saskibaloia taldea

Goierri saskibaloia taldeko seniorrek txapela kentzeko moduko denboraldia egin dute Xabier Chicoren eskutik. Hasi-erako helburua, A2 ligaska jokatuz Igo Autonomian mantentzea zen baina jokalariek eginiko ahaleginari esker, azkenean A1 ligaska jokatu dute eta 2. mailara igotzeko zorian izan dira. Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko 10 jokalariz osatutako taldea da, gainera, kontuan izan behar da 4. juniorrak direla. Igoera fasera nekatuta iritsi dira Chicoren jokalariai bai fisikoki nahiz siki-koki. Gainera, nahiz eta duten guztia ematen saiatu, espero ez zuten opari moduan jokatu dute igoera fasea. Jokalari gehienak estreinakoz aritu dira Igo Autonomika delako ligan eta arrazoi

hori dela medio, gogo biziz aritu dira, kategori honetan jokatzeke irrika zuten. Garai batean bezala, Aldiri kiroldegian berriz ere hainbat zaletu bildu da Goierriren neurketak ikusteko eta horrek ere asko lagundu du taldearen martxa onean. Gehiegi lagundu ez dutenak beste behingoz, epaileak izan dira. Igoera fasean, zer esan handia izan dute hainbat emaitzatan. Datorren denboraldia-ri begira, bertakoak diren baina kanpoan jokatzen ari diren jokalariai berreskuratu nahi litzukete talde sendagoa egiteko.



Ikastola Urretxu-Zumarraga

Urretxu-Zumarraga Ikastola izeneko nesken futbol taldea duela 6 urte sortu zen eta urte-ek emandako esperientziari esker gora egin du. Liga erregularrean iguera fasea jokatzeko aukera lortu zuten eta orain hau jokatzeko ari dira beste zazpi talderekin batera.

2. itzuliko lehen partidua jokatu ondoren, hirugarrenak daude, bi lehenengoengandik bi puntutara. Lehenengo postua lortuz gero "Liga Nacional" deritzana jokatzeko aukera eskuratuko lukete. Liga hau talde ezberdinetan sailkatua dago eta estatu mailako gorengo maila da. Bertan Bizkaia, Nafarroa, Aragoa eta Gipuzkoako taldeek jokatu dute datorren urtean. Nahiz eta momentu honetan hirugarren tokian kokaturik egon, badaude itxaropenerako arrazoiak. Izan ere, bi lehenengoen aurkako bueltako partiduak jokatu behar dituzte oraindik eta Argixaon gainera. Etxean jokatzeko geratzen zaizkien partiduak maiztzean izango dira eta berebiziko garrantzia dute. Garaipenera bultzatu nahi dituen edonork Argixaon du zita larunbat arratsaldeetan.



Urola Agip eskubaloiko taldea

Eskubaloia azken urteetan berri pozgarriak ematen ari da Zumarragan nahiz eta batzuetan behar den neurrian ez baloratu. Urola Agip eskubaloiko taldeak denboraldi bikaina burutu du eta orain, lurraldekako lehen mailara igotzea du helburu. Denboraldi hasieran, iguera faserako sailkapena zuten jomuga baina orain, hasierako helburua beteta dutela, "play off" horretan duten guztia ematen saiatuko dira mailaz igotzeko. Jose Angel Garcia Varak entrenatzen duen taldeak astean bi bider entrenatzen du, astearte eta ostiraletan. Igoerako ligaxka, Bizkaiko hiru talde, Gipuzkoako bi eta Arabako beste talde bat ari dira jokatzeko. Sei talde hauetatik lehenengo biek izango dute Nazional Mailako 2. mailara igotzeko aukera. Momentuz 6 partidu jokatu dituzte eta igoyerako fase horretan, bosgarren postuan daude. Zortetik onena opa diogu Urola Agip taldeari eta ea zaletuen laguntzarekin batera, datorren urtean Nazional mailako 2. mailan ikusten dugun.

CHIARA

**Etxerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

ARKYPE TABERNA

Euskadi Enparantza, 5
☎ 72 43 19 ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE
Electricistas, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 72 42 66
☎ Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU



HAR-GOR

Artisautza - Jazkiak - Opariak

Nekolalde, 1
☎ 72 56 58

20700URRETXU
(Gipuzkoa)

VRKI

JAVNARTZETARAKO
OPARI BEREZIAK

S. Esnaola, 3
☎ 72 42 98
ZUMARRAGA





Joxe Manuel Bereziartua
"Bere"

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Gezurra dirudi baina apaiza.

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Beroa.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Denetarik. Gehienbat bizikletan ibiltzea.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Segun nork egiten didan, edozein.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Mongoliako artzai ibiltari bat.

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Gehiago nekatzeko.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Kaderak.

✓Nora begiratzen diozu lehenik neska bati?

Ipurdira.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Erreka garbi bat edo hondartza.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Gaztelekuko ataria.

✓Urretxun ezik non biziko zinateke gustura?

Asteasun.

✓Zein da duzun ohiturarik txarrena?

Neskei ipurdira begiratzera.

✓Bete gabeko amets bat?

Asko.

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Denetarako.

✓Kantu bat.

Peter Gabrielen "Passion" diska.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Goroto dut zain egotea eta nire zain ere ez dira asko egoten.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Norbere buruarekin bakean egotea.

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Nirekin azken muturreraino joango litzatekeenarekin.

✓Gaua ala eguna?

Gaua ederra da.

✓Lo egiteko zer?

Logurea.

✓Gustuko janari bat?

Spaghettiak.

✓Ura, ala...

Sagardoa.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Gauza pila bat.

Urdaneta, 7 behea
☎ 72 37 09
20700 ZUMARRAGA



Plazaola, 1
☎ 73 16 42
20230 LEGAZPI

INGELESA ● FRANTSESA ● ALEMANA ● EUSKERA



-n hizkuntza guztiak ikasi ahal izango dituzu munduan zehar arazorik gabe ibili ahal izateko


PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75

UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA

Lanbide heziketako udal herri ikastetxea

MATRIKULA ZABALIK
INFORMAZIOA: 72 54 77
9 etatik 13 etara



ESKABIDEAK AURKEZTEA:

maiatzaren 5 eta 18 bitartean batxilergo eta erdi mailako heziketa zikloetarako.

MATRIKULA EGITEKO ALDIA:

uztailaren 1 eta 10 bitartean batxilergo eta erdi mailako heziketa zikloetarako.

(Uztailaren 2 eta 3an ikastetxea itxita egongo da).

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO
MATRIKULA EGITEKO ALDIA: ekainaren 16 eta 19 bitartean.

UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA 1998-99 IKASTURTERAKO ESKAINTZA

→ BATXILERGO TEKNOLOGIKOA

(euskaraz eta erdaraz)

→ LANBIDE HEZIKETA:

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK: (2 IKASTURTE)

*MEKANIZATUA

(Fabrikazio Mekanikoa Familia)

*EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK

(Elektrizitate-Elektronika Familia)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK: (2 IKASTURTE)

*MEKANIZATUAREN BIDEZKO PRODUKZIOA

(Fabrikazio Mekanikoa Familia)

*INDUSTRI EKIPOAREN MANTENIMENDUA

(Mantenimendua eta Produktzioarako Zerbitzuak Familia)

*ERREGULAZIO ETA KONTROL-SISTEMA AUTOMATIKOAK

(Elektrizitate-Elektronika Familia)




UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA

U.G.L.E. H.E.T.E.L. eko kide
TEKNOLOGIA ETA KALITATEA

**AMATXO, ZERGATIK IPARRALDEKO
NESKA-MUTIKOEK EZ DAUKATE
EUSKARAZ IKASTERIK?**



1.000 harri behar ditugu Urruñan ikastola eraikitzeko



ZURE HARRIEKIN, GURE HAURREN ATERBEA. Guretzat euskaltzaleek erosi harriekin eraikiko ditugu Urruñako ikastolaren hormak.

HARRIZ HARRI ETXEA ERAIKI. 400 liberako / 10.000 pezetako 1.000 harri bildu behar ditugu Urruñako haurrek ikastola ukan dezaten.

JARRIKO AL DIOGU ZURE IZENA URRUÑAKO IKASTOLARI? Erosten duzun harri bakoitzari zure adierazgarria ipiniko diogu emandako laguntzaren seinale, eta etxean jasoko duzu zure laguntzaren oroigarria.

NOLA EROS DEZAKET HARRIA? Orri honen azpian zure xehetasunak idatzi eta bidaliezaguzu gure helbidera.

BESTELAKO DIRU-LAGUNTZA EMAN NAHI BADUT? Laguntza guztien artean bidai bat zozketatzen dugu.



URRUÑAKO IKASTOLA ERAIKITZEKO KOMITEA
MIGUELENIA,
SOKORRI KALEA
64122 URRUNA
TEL.: 0559543995 / 0559543334

Harri bat erosi nahi dut Urruñako ikastola eraikitzeko

IZEN ABIZENAK

HELBIDEA

Erosi nahi duzun harri kopurua Harria erosi ordez, bestelako diru laguntza eman nahi dut. Kopurua:

Pagatzeko modua (egin gurutzea dagokion lekuan):

- TXEKE BIDEZ. KOPURUA:
- TRANSFERENTZI BIDEZ. KOPURUA:

Euskadiko Kutxa 3035 0036 10 0360044960

Caisse Epargne 16485 00040 0492094691104

